

## 32 GUNEA. MUNDAKAKO LUMAKELA. PUNTO 32. LUMAQUELA DE MUNDAKA

### BALORAZIOA

*Interesa: Zientifikoa.*

*Kategoria: Eskualde mailakoa.*

*Kontserbazioa: Ona.*

*Antzeko beste gune batzuk: Ereñeko marmolak.*

*Irispidea: Gernika-Bermeo errepidetik joanda, Mundakako portutik hurbil.*



### VALORACION


Interés: Científico.

Categoría: Regional.

Conservación: Buena.

Otros puntos semejantes: Mármoles de Ereño.

Accesos: En las cercanías del puerto de Mundaka, al que se accede por la carretera Gernika-Bermeo.



*Urgoniarreko Komunitateen paleoekologia ikasteko erakuskari bikaina da fosil-depositu hau. Marga eta kararri Urgoniarren harremanak ere beha daitezke.*


*Kararri gris ilun baten azaloramendu honek makrofosil ugari dauzka, hala nola, koral adarkatuak eta masiboak, errudistak eta ostreidoak. Tarteak aurkitzen dira margazko mailak koral masiboekin edo orbitolina ugariarekin. Erosioak nabarmendu egin ditu elementu biologikoak, haien behaketa erraztuz.*

*Urgoniarreko garaian lurralde hauetan itsaso mehe eta beroko baldintzak izan ziren, eta giro hartan hainbat asoziazio biologiko gurendu ziren, horietatik batzuk arrezife-eraikitzaileak izanik. Ingurune hau kostatik hain hurbil egoteak ekartzen du lehorreko eramankinen pilaketa —margazko mailak— segur aski ekaitz gogorren ondoriozkoa.*

*Bizkaia guztian antzekorik ez duen leku bat, interes zientifiko paregabekoa. Horregatik errespetu guztia zor zaio azaloramenduari. Hango fosilek ez dute interesik handik erazuten badira baina kalte izugarria egingen da horrela. Bihotzez gomendatzen diegu zaletu guztiei hemen eta leku guztietan ordezkaria dezatela mailua argazki-kamara batekin.*

MUNDAKAKO LUMAKELAREN  
FOSIL KARAKTERISTIKOAK

## FAUNA URGONIANA



TOUCASIA



AGRIOPLEURA



HIPPURITES

FOSILES CARACTERISTICOS DE LA  
LUMAQUELA DE MUNDAKA

Este depósito fosilífero constituye un ejemplo magnífico para el estudio de la paleoecología de las comunidades del Complejo Urgoniano. También pueden observarse las relaciones entre las margas y calizas urgonianas.

Se trata de un afloramiento de caliza gris oscuro con abundantes microfósiles, entre los que destacan corales ramosos masivos, rudistas y ostreidos. Aparecen intercalados niveles margosos con corales masivos o bien abundantes orbitolinas. La erosión ha destacado los elementos biológicos, permitiendo su observación.

Durante el Urgoniano, se dio en nuestra área geográfica unas condiciones de mar somero y cálido, en el que prosperaron las distintas asociaciones biológicas, algunas de las cuales eran constructoras de arrecifes. Este es el caso de los corales y de las rudistas. La proximidad de este ambiente a la costa origina los aportes terrígenos (los niveles de margas), provocados probablemente por grandes temporales.

Las características de este punto le hacen único en Bizkaia, con enorme interés científico. Debido a esto, es preciso el máximo respeto a afloramiento. Conviene tener en cuenta que los fósiles que aparecen carecen de interés si son arrancados, pero el daño que puede realizarse de esta forma es irreparable.

Recomendamos muy encarecidamente que los aficionados sustituyan, en éste y en todos los casos, el martillo por la cámara fotográfica.